


WALUK

Ana Miralles · Emilio Ruiz



ASTIBERRI

NEGUA HURBIL ZEN, ETA GERO ETA ZAILAGOA ZEN BIZIRAUTEA. HARTZ ZURIAK AKTIBO DAUDE URTE OSOAN. HORREK ESAN NAHI DU JANARIA FALTA DENEAN BEHAR DEN TOKIRAINO JOANGO DIRELA BILA. GERO ETA GERTUAGO ZEUDEN GIZAKIENGANDIK. EGUN BATEAN, BESTELAKO ZORU BAT ZAPALTZEN ZUELA OHARTU ZEN WALUK. LATZA ZEN UKITZEAN, USAIN BITXIA ZUEN, BERO ZEGOEN ETA BELTZ-BELTZA ZEN: ASFALTOA.

ZER DA HAU, ESKIMO?

GIZAKIEK ERABILTZEN DITUZTEN BIDEAK DIRA. HAUEI ESKER OSO BIZKOR JOATEN DIRA TOKI BATETIK BESTERA, HANKA BIRIBILETAKO IZAKI BITXI BATZUEN BARRUAN...

BEGIRA, WALUK! HOR DOAZ. IKUSTEN?


Ajjjj!

HORI EZ DA JATEN, EZ?

EZ, EZI MUGITU ARREN, EZ DIRA JATEKOAK. KIRATSA DARRIE ETA EZIN DIRA HAGINKATU.

TOKI HONETARA ETORTZEN GARA HARTZOK OSO GOSE GARENEAN. GIZAKIEK ERDI JANDAKO JANARIA BOTATZEN DUTE, ETA GERO ERRE EGITEN DUTE.









ASKATUKO
ZAITUT,
ESKIMO!



LAGAIZU,
WALUK.

ALFERRIK
DA.



BIZITZA OSOA DUZU
AURRETIK. FOKA ASKO
EHIZATU BEHAR DITUZU
ORAINDIK. ZOAZ, SEGI
ZURE BIDEARI!

EZ, ZUREKIN
GERATUKO NAIZ.
GIZAKIAK DATOZENEAN, ZU
ASKATZERA BEHARTUKO
DITUT, ETA ELKARREKIN
JOANGO GARA.

LOKARRARAZTEN
DUTEN MAKILAK EKARRIKO
DITUZTE, ETA KAIOLATUTA
AMAITUKO DUZU, NIK
BEZALA. ZOAZ!







